

DAMA BELTZA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ELENA: Nola? Ni "Dama beltza" naizela? Hiri honetan hamar hilketak baino gehiago ezkutuan daramatzen emakumea... ni naizela? (*Pentsatzen du*) Nola otu zaizu hori? Ez, ez, ez, itxaron, utzi hitz egiten. Badakit. Pentsatzen dut frogak bilduko zenituela -horiek frogak dira, ezta?-, edo zantzuak, edo Dama Beltza ni naizela dioten susmoak, tira, bai. Nire galdera hau da: nola bururatzen zaizu hemen esatea -hemen!- Dama beltzak biktimak hiltzen dituela baldin badakizu, bakarrik zaudenean? (*Isiltasuna*) Ideia ona iruditzen zaizu hona etortzea esatera? Honaino? (*Oihuka, besoak irekiz*) Kaixo! Nire lagunak esan du ni Dama Beltza naizela! Beltza, beltza, beltza, eltza... (*Oihartzuna berak erreproduzitzen du, gero bere laguna begiratzen du*) Ez dago ezta mugikorren estaldurarik. Ezin dut sinetsi. Hain harroa izan zara, ezen esatera etorri zara jakin bezain laster. Ni baino ikerketa-sen hobea duzula frogatzeko egarri errea zeneukan. Inoiz ez duzu jasan emakume batek zu baino gehiago nabarmentzea Sailean. Ba, badakizu? -ozen pentsatuko dut-... (*Bere ingurura begiratzen du, ez dago inor kilometrotara*) Nik... Uste dut arrasto faltsuen atzetik jarraitzen dugula, uste dut hiltzaile hori zatarki azkarra dela, zu bezalako tipoak hiltzen eta haietaz trufatzen gozatzen duela; eta uste dut... ez naizela ni. Hori uste dut. Eta uste dut nik, zuk baino, ikerketa-sen hobea izatea komeni zaizula... Ezta? (*Gizonak ez du erantzuten. Infinitura itzuli eta oihu egiten du oihartzuna eginez*) Egia! Egia! Gia!

OHARRAK: **ELENA** eta haren kidea poliziak dira. Aspalditik dabilta hiltzaile misteriotsu baten atzetik. Azken orduko zantzu batzuek -eta aspalditik datorren susmoa- **ELENA**ren lagunari esan diote hau, **ELENA**, ziur asko hiltzailea dela. Sailari aurkikuntza horren berri eman beharrean. Lankidea **ELENA**ri esatera joan da, aurrez aurre. Ezin izan dio eutsi bulkadari. Harrokeriaz jokatu du. Denbora gehiegi zeraman jasaten denek, **ELENA** bera baino ikerlari hobea zela aldarrikatzen zutela.

Zinema beltzeko monologoa. TB beltzeko seriekoa. Aktoreak isilune horiek, begirada horiek, infinitua oihukatzen duen tonu-irteera horiek ustiatu behar ditu. Lankidea isildu du. Hark agintzen du. Unea kontrolatzen du. Hitz egin ahala, beldurra sartzen dio lagunari -hiltzeko mehatxua egiten ari da-. Eta horrekin gozatzen du. **ELENA** ez da hiltzailea. Bere lankideak une txar

Ele txera
Hondoluetik zabaldiaz



DAMA BELTZA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

bat igarotzea besterik ez du nahi, huts egiteagatik errieta moduan (oker bikoitza: bera hiltzailea dela sinestea eta esatera etortzea). Hala ere, lankidearengan sortzen den zalantza argitu du: hilko du? Monologoaren ikusleak ere badu zalantza hori.

ALDAKETAK: *Eta **ELENA** hiltzailea bada? Kasu horretan, badirudi **ELENA**k tratu bat eskaintzen diola lagunari: aurkitu duzuna isiltzen baduzu, ez zaitut hiltzen. Diskurtsoa ez da aldatzen, baina funtsa pixka bat alda daiteke. Hain txarra izan liteke ezen, lankideari itxaropenerako atea ireki arren, **ELENA**k bera ere hiltzea erabaki duela, eta birsortzen ari da. Nolanahi ere, monologo bizia da, eta kargarekin interpretatu behar da.*

Ele txera
Mundua ez zabalduz

